ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko urtarrilaren 14a, astelehena • 6 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren 369/2018 Foru Agindua, abenduaren 21ekoa, 25 eremuaren lerrokadurei buruzko Guardiako arau subsidiarioak aldatzeko Ingurumen Txosten Estrategikoa ematen duena

"25 eremuaren lerrokadurei buruzko Guardiako arau subsidiarioaren xedapen aldaketa" izapidetzeko, ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura sinplifikatua jarraitu behar da. Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, arautzen du prozedura hori.

Prozedura horren esparruan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak aldaketa puntual horren inguruko ingurumen agiri estrategikoa jaso du, Guardiako Udalak igorria eta abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, arututako gutxieneko edukiari jarraitzen diona, bai eta hirigintza agiria ere.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, lehen aipatutako dokumentazio hori jaso ondoren, kontsultak egiteko aldiari hasiera eman zion eragindako administrazio publiko eta pertsona interesdunei dagokienez, 21/2013 Legearen 30. artikuluan ezarritako eran.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2018ko irailaren 11n eman zuen Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (18/117 espedientea).

1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena:

Hauek zuzendu nahi ditu aldaketak: "Hiri lurzorua eta lurzoru urbanizagarria. Hiri egitura, bide sarea eta zonifikazio xehatua: Guardia" II.4.1 planoan eta "Hiri lurzorua eta lurzoru urbanizagarria. Eraikitzeko baldintzak, lurzoruaren jabaria eta ondarearen babesa: Guardia" II.5.1 planoetan grafikoki jasotako lerrokaduren artean ikusitako kontraesanak eta horretarako 25 eremuaren hirigintza fitxan xedatutakoa, halako moldez non eremu horretako eraikinek bete behar dituzten lerrokadurei eta atzeraemanguneei dagokienez arauketa koherente eta eraginkorra eman daitekeen.

Beraz, honetan datza proposatutako xedapen aldaketa:

• A-3216 errepidearekiko lerrokadura atzera ematea A-3216 errepidearen kanpoko ertzetik 25 metrora kokatzeko, Arabako Foru Aldundiaren Errepide Zerbitzuak xedatutakoaren arabera.

• 819 zenbakiko lurzatiak 823 zenbakiko katastro lurzati mugakidearekiko duen lerrokadura lurzati bien arteko mugatik 3 metrora kokatzea, "ipar industrialdea" 25 eremuaren hirigintza fitxan eraikinen lurzatien arteko barruko etzetarako gutxieneko atzeraemanguneetarako aurreikusitakoaren arabera.

Ez da aldatzen eremuaren bestelako hirigintza parametrorik, ezta hirigintza fitxaren edukia ere, ez da ezarritako eraikigarritasuna handitzen, eta ez zaio eragiten antolamendu xehatuaren bestelako inongo parametrori.

Xedapen aldaketak II.5.1 planoan aurreikusitako lerrokadurak zuzendu besterik ez du egiten eta, beraz, antolamendu xehatuaren parametroei baino ez die eragiten, irudi hauetan grafikoki jaso denez:

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

INDARREKO PLANGINTZAREN EGOERA	PROIEKTATUTAKO PLANGINTZAREN EGOERA
	
II.5.1 planoan 819 lurzatian dauden eraikinak handitzeko aurreikusitako lerrokaduren xehetasuna, lurzatiaren mugetatik dauden distantziak mugatuz.	819 lurzatian dagoen eraikina handitzeko aukera arautzen duen II.5.1 zenbakiko planoko lerrokaduretarako proposatutako aldaketaren xehetasuna.

1.2. Ebaluatu behar den eremu geografikoa:

Xedapen aldaketa honen eremuak "hego industrialdea" 25 eremuaren eki-mendebaldeko eraikinetarako, 14 industrialdeko 819 zenbakiko katastro lurzatiaren inguruan, aurreikusitako lerrokadurei eragiten die zehazki. "Hego industrialdea" 25 eremua Guardia hirigunearen hego-ekialdean dago, irudi honetan zirkulu gorrian nabarmentzen denez:

1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan azaltzen denez, bi aukera kontuan hartu eta aztertu dira:

— "0" aukera (hautatu ez den aukera): Egungo egoera denboran mugarik gabe luzatzea lekarke.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan bertan esaten denez, "aztertzen ari garen kasurako, helburua udalerriko arau subsidiarioen planoetako grafian dagoen akats bat zuzendu eta arau horren idazketa horretarako egokitzea eta, beraz, aukera bakarra akatsa zuzentzea da kartografia birdefinituz" eta, beraz, "1" aukera hau proposatzen da.

— "1" aukera: (Hautatua): Indarreko hirigintza plangintzako II.5.1 planoan aurreikusitako lerrokadurak zuzenduko lirateke, antolamendu xehatuko parametroei baino eragin gabe, lehen azaldu den bezala, hots:

• A-3216 errepidearekiko lerrokadura atzera ematea A-3216 errepidearen kanpoko ertzetik 25 metrora kokatzeko, Arabako Foru Aldundiaren Errepide Zerbitzuak xedatutakoaren arabera.

• 819 zenbakiko lurzatiak 823 zenbakiko katastro lurzati mugakidearekiko duen lerrokadura lurzati bien arteko mugatik 3 metrora kokatzea, "ipar industrialdea" 25 eremuaren hirigintza fitxan eraikinen lurzatien arteko barruko etzetarako gutxieneko atzeraemanguneetarako aurreikusitakoaren arabera.

2. Kontsulta fasearen laburpena

2018ko urriaren 9an, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak abian jarri zuen eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko fasea, araututako prozedurari jarraituz. Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarteen zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duen adierazi da:

URA – Uraren Agentzia	√
Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza Natura Elkartea	
GAIA elkartea	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartea	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	
Arabako Kontzejuen Elkartea	
SEO Bird Life	
Guardiako Udala	
Guardia - Arabako Errioxako Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	√

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoaren laburpena (alegazio edo gogoeten kopia osoa dago Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 18/117 espedientean eta www.araba.eus webgunean):

• Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak bere txostenean zehaztu du proiektuaren eremuan ez dela hondakin edo egitura arkeologikoen berririk orain arte.

• URA - Uraren Euskal Agentziak lehenengo txostena eman du 2018ko urriaren 17an. Han, honako hau adierazten du: "zuen eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri zaio, erreferentziako gaiari buruzko txostena eman dezan, komenigarritzat jotzen badu, abenduaren 9ko 21/2018 Legean, ingurumen ebaluazioarenean, ezarritakoarekin bat etorriz".

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

• Eusko Jaurlaritzako Ondare Zuzendaritzak hau ondorioztatu du: "dokumentazioa aztertuta, jakinarazten dizugu plan horren eremuan ez dela eraginik sumatzen kultura ondarean".

• Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak zera bildu du bere txostenean: "Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, ikusi da aurkeztutako proiektuaren eremuan ez dagoela bere balio historiko eta kulturalaren ondorioz babestutako elementurik eta, beraz, Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren ikuspuntutik, ez dago oztoporik hori izapidetzeko".

• Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak hau dio, xedapen aldaketaren laburpena egin ondoren: "Guardiako arau subsidiarioen xedapen aldaketa horren jarduera eremua hiri lurzoru finkatura mugatzen da eta ez zaie eragiten ez landa lurzoruari ez nekazaritza eta abeltzaintzari. Zuzendaritzaren ustez, ez du eraginik Arabako Lurralde Historikoko landa bideen erregistroan inskribatutako landa bideetan ere".

3. Eragina jaso lezaketen elementuetatik zeintzuk diren ingurumen balio handienekoak. Ingurumen eragin nagusiak

Honetan datza goiburuko xedapen aldaketa: Guardiako 14 industrialdeko 25 eremuko 819 lurzatiaren lerrokadura atzera ematea, bai A-3216 errepidearekiko, bai 823 lurzatiarekiko eta, beraz, ez da aldatzen eremuaren bestelako inongo hirigintza parametrorik, ezta hirigintza fitxaren edukia ere, ez da ezarritako eraikigarritasuna handitzen, eta ez zaio eragiten antolamendu xehatuaren bestelako inongo parametrori.

Xedapen aldaketaren eremuan zuhaitzak daude. Xedapen aldaketaren eremuan landaretza alde ondo bereizi bi daude. Alde batetik, eremuaren hegoaldean zenbait fruta arbola daude. Bestalde, 819 lurzatiaren ekialdeko muturrean, altzifre ilegabeen (*Cupressus glabra*) eta pinu gorrien (*Pinus sylvestris*) zerrenda estu bat dago egun, eta haren kontserbazio egoera hobetu liteke, jasan dituzten inausketa ugariak direla eta.

Nolanahi ere, uste da goiburuko xedapen aldaketak ez lekarkeela ingurumen ondorio esanguratsurik, hein batean lerrokadurak aldatuko lituzkeela hiri lurzoru industrialeko eremu batean, non pabilioiak eta upeltegiak baitaude eta, beraz, egokitzat jotzen da sustatzaileak Ingurumen Agiri Estrategikoan horri buruz egin duen tratamendua.

4. Ondorioak. Ingurumen baldintzak

Ingurumen Agiri Estrategikoa eta ingurumenean integratu eta hura babesteko dakartzan neurriak eranskin gisa sartuko dira behin betiko onartzeko aurkezten den xedapen aldaketako hirigintza agirian.

Horrenbestez, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoak, 40. artikuluan ematen dizkidan eskumenak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. "25 eremuaren lerrokadurei buruzko Guardiako hirigintza plangintzaren arau subsidiarioen xedapen aldaketa"ren Ingurumen Txosten Estrategikoa ematea.

Bigarrena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen ebaluazioarena, betetzeko, ingurumen txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Ingurumenaren txosten estrategiko hau ALHAOn argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abenduaren 21a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria
AMAIA BARREDO MARTÍN

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.01.15 00:00:27 Z